

ZEANURIKO KOPLA ZAHARRAK

A D O L F O A R E J I T A

Sarrera

Oraingo honetan aurkeztera gatortzuezan koplak, bertso edo kantuok 1925. urte inguruan jasotutako Etxebarria'tar Peli-k Zeanurin, antza denez.

Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza eta Literatura Sailera Manuel Lekuonak aurkeztu zituen 1979. urtean, bertoko kuadernoetan ateratekotan.

Manuel Lekuonak dinoskunez, Peli Etxebarria-k Zeanurin jasotutako zituan. Dana dala, ez dinosku biltzaileak berak, eskuzko idatzian, ez non ez nogandik jasotutako zituan. Izenburu bakar bat ipini deitise: «**Bertso zarak**». Ezagun da gehienak Arrati aldekoak direana, eta beharbada, dan-danak Zeanurikoak izango dira. Baiña badira baten batzuk, gaur behintzat Arratian barik beste eskualde batzuetan sarri-sarri entzuten direanak.

Gasteizgo Seminarioan 1920-28 bitarte inguruan herri literatura eta herri kultura osoaren inguruan lan sendoa egin zan, bilketa aldetik batez ere, Joxemiel Barandiaran eta Manuel Lekuonaren inguruan. Eta hemen argitaratzera gatozan koplak honeek, Manuel Lekuonak garai hartan zuzentzen eban «Kardaberaz» mintegirako bildutako zituan Peli Etxebarria zeaniztarrak, urtean. Gaur mixiolari dago Formosa-n jesuita eskualde hau.

Irakurlea behingoan ohartuko denez, bilketak daukan sailkatze arau bakarra, koplak bakotxari zenbaki bat ipintea izan da. Alkarren

atzean nahasian dagoz trikiti koplak (fandango zein arin-arinekoak ordena bagarik), umeei kantatekoak, umeen jolasetakoak, urtebarri-erregenetakoak, edo kantu herrikoiak. Argitaratzeko prestatzerakoan, alde horretatik egin dogun bakarra zera izan da: bata besteagaz koplak arean ere zerikusirik ez eukela ikusten izan danetan, lerro batez banandu.

Idazkera aldetik ere ikututxo batzuk egin deusaguz esku-idatziari: «í» kakodunen ordeaz «rr» bikotxak ipini, «ñ»-ren ordeaz «iñ» sartu, izen berezien ostean eta atzizkiaren aurretik dagozan kakotxoak kendu, «s/z» letrak gaurko arauz ipini, eta ia besterik ez.

Geunkazan zalantza edo azalpen beharretan ohartxo batzuk ere ezarri deusaguz bilketari, lagungarri izan dedin.

**ZEANURIKO KOPLA
ZARRAK**

1.

*Bedarrik ederrena da
Soloan garie
Andrarik onena da
Birgiña Marie.*

2.

*Antoniok koplak koplak
Dirue boltzara
Amaika mutil zoro
Batzen da plazara.*

3.

*Antonio Goitia
Bigolinerua
Zortzi mari gaitiño
joten dau soñua.*

4.

*Bitorin neska gitxi dago
Millerlen⁽¹⁾ bapebez
Otxandion badagoz baiña
Ogirik egiten jakin ez.*

5.

*Otxandio eta Ubide
Arrazola partetik
Pobreen fortuna
Beti kokotetik.*

6.

*Axe Arrazolatik
Mañari bitarte
Arrautze tortillea
Sartankilla bete.*

7.

*Antzine esan neuntzun
Mari eskupulu
Gabeko errolda
Eztala segurue.*

8.

*Gabian erroldan da
Goizian logure
Etzara zu mutilla
Osasunen gure.*

9.

*Abustin kirre marro
Dendari karue
Sonbreru baltza eta
Sinta moradue.*

10.

*Semetxo txiki negarrez dago
Ama emoiozu tiite
Aite faltzoa trabenan dago
Arlotea ta nagie.*

11.

*Ederra zareala
Pentzetan badozu
Espillu faltzo orrek
Engañatzen zaitu.*

12.

*Eder ederra baiño
Oba da konbeni
Ederrak kendu leio
Buruko zentzuni(k)⁽²⁾.*

13.

*Maritxu nora zuaz
Eder galantori
Iturrira Bartolo
Nai bozu etorri.*

14.

*Zer dago iturrian
Ardaotxo zurie
Biok edango dogu
Nai dogun guztie.*

15.

*Eriotzeaz gauza ba(t) gaitik⁽³⁾,
Enagoala kontentu
Aberatzari diruak gaitik
Ezin leio ta parkatu.*

16.

*Aberatz orrek diruak ditu
Probeak umildadea
Projimuegaz ondo on⁽⁴⁾ bear
Zabalduteko atea.*

17.

*Amak ezkondu naiela
Neure moduko batekin
Dotea emongo eustela
Oillo bat bos txitarekin*

18.

*Antxine bota neuntzen
Astoari plana
Anka luzeak eta
Lepo iru kana.*

19.

*Neure laztanak yaten deu
Maillukiekaz ogie
Ostera bere eukiko deu
Luze eta linde garrie.*

20.

*Zatan lei⁽⁵⁾ alegre danak
Triste egon da ez dau probetxu
Gazte zoroak eztau falta
Norekin entretenida*

21.

*Ezkondu nintzarian
Bost gona nintuen
Bi prenda ipini te
Bi saldu nituen.*

(6)

24.

*Oillua faltau yako
Mari mondrongori
Buztena pardo pardo
Paparra beillegi
Aren arrautzatxoak
Bolea dirudi.*

25.

*Domingo da domeka
Astelena lunes
Ormetzeko Klaritak
Artorik yan gurez.*

26.

*Sagu zurra
Eutzi agin zurra
Ekazu agin harria
Zagu zar barregarria.*

27.

*Urte barri barri
Daukenak eztaukenari
Nik eztaukat eta niri
Ezpabe txarri belarri.*

28.

*Apalazio zaldune
Iru erregeen egune
Iru erregek bialdu gaitu
Limosnatxo baten bille.*

29.

*Dimetik Yorrera
Paraje zelaie
Yorrek bota deutzo
Dimeri bonbaie.*

30.

*Aita semeak trabenan dagoz
Ama alabak jokuan
Ostera bere egongo dira
Erropa zarrak kakuan.*

31.

*Santa Luzietan gaba da luze
San Bernabetan egune
Nobera ondo egon ezkeru
Ezta erruki lagune.*

32.

*Ababatxoa lo ta lo
Ze karajo ta ze koño
Ababatxoa lo doa
Araño demoniñoa.*

33.

*Arako antzineko
Bioren kontuek
Ixillik egon arren
Eztaukaz⁽⁷⁾ aiztuek.*

34.

*Atzoa ta agurea
Alkarren atzian
Basora jua diru.
Pekorotz batzian.*

35.

*Atzoa ta agurea
Asarratu dire
Atzo demoniñoak
Bargetatik tire.*

36.

*Arantza baltzena da
Lenengo lorea
Damutzen jakonari
Jaungoikuak obea.*

37.

*Arako zeuk gure
Ta neuk eneueanean
Berba labanik asko
Zeu(n)kan zuk miñean.*

38.

*Ama buruen min dot
Ez esan aitari
Atzoko erroldiak
Egin dausta niri.*

39.

*Euskeraz kantauko dot
Au da bigarren bertzoa
Onexek emongo dautzu
Yantzan eiteko gogoa.*

40.

*Leiotxubet egin beot
Itxasoaren parean
Andixik ikusteko
Neure laztana noiz duan.*

41.

*Soldadu noa soldadu
Ontzi barrien soldadu
Eztot gure iuan baiña
Eroango neure seguru.*

42.

*Oraingo mutiltxoak
Bana banakoak
Lapiko tapatzako
Alagalakoak.*

43.

*Ibilli ta erabilli
Ezin dot eralgi
Errotara jua da
Saie dot ekarri.*

44.

*Errotari
Molineru
Saie jan da
Putze bero.*

45.

*Ortuen perejille
Saleruen gatzu
Ekarri Mari Pepa
Yan dogun⁽⁸⁾ lebatza.*

46.

*Negar da negar dago
Errosa gurea
Katuek jan deutzela
Bart labadurea.*

47.

*Anton errementari
Bentanan loroa
Urrea dalakoan
Plomoa daroa.*

48.

*Errosa ez eidazu
Katue mankatu
Saguek eroateko
Katue beogu.*

49.

*Itsasoan ure lodi
Ezta ondarrik agiri
Neure laztana ikustearren
Paseuko nintike ni andik.*

50.

*Ze mutil anka luze
Begi arranpalo⁽⁹⁾
Tabernara jua da
Negarrez ei dago.*

51.

*Maritxu Petrolina
Olabarrikoa
Katuek jan dautzela
Surteko taloa.*

52.

*San Blas pasau den urte bi
Abadiñora nindun ni
Denpora txarrak emonda
Enintzen ondo ibilli.*

53.

*Mendi altuen edurre
Bota surtera egurre
Alaba galanten amak
Mutil zantarren bildurre.*

54.

*Aita aita da ta
Susulen berbe
Ama ama da ta
Masuste berbe.*

55.

*Aite joan da Bituriera
Ama lepoan artute
Aite etorri da Biturietik
Ama bidean galdute.*

56.

*Aite gureak amari
Gona gorrie ekarri
Luze da, labur dala
Garri garritik erdibi.*

57.

*Errekan dago arrie
Aren gañean txorie
Neskatxa kolore gorrie
Mutillen engañagarrie.*

58.

*Erreka baztarreko
Lirio lorea
Enaz ederra baiña
Bai eder zalea.*

59.

*Oilloa faltau jako
Mari mondrongori
Seiñale onak ditu
Agertu baledi.*

60.

*Buztena luze luze
Paparra beillegi
Aren arretzetxoak
Bolea dirudi.*

61.

*Zeaniko errien
Iru neskatille
Kalabazea janda
Lodituten dire.*

62.

*Txikitine ta polite
Lupetzako Pantxike
Alargunagaz ezkontzia
Asko sentiduko neuke.*

63.

*Altuen da San Kristobal
Bajuen Madalena
Ajen bien bitartean
Donutxuko taberna.*

64.

*Udabarriko lorea
Eder mayatzean
Ez egunez etorri
Erdu arratzean.*

65.

*Altuen San Bernabe
Bajuen Gordobil
Otxandioko plazan
Tanboliña dabil.*

66.

*San Joan ta San Miguel
Mezea erazoten
Amabi apostoluek
Mezea kantetan.*

67.

*Aspaldien eztot ikusi
Donostiko Fidela
A baño gurago neunke
Txarri onaren gibela.*

68.

*Txalopin txalo
Katutxoa mesmeruen
Gañean dago
Badago bego
Zapatatxo barrien
Begire dago.*

69.

*Aurtxo txikie negarrez dago
Ama emoiozu titie
Aite gaiztoa tabernan dago
Pikaro iokolarie.*

70.

*Zornotzan salada batek
Egin dau gona gorrie
Barrenetik imiñi dautso
Aginadure zurie.*

71.

*Biturie da Araba
Alargun batek eukezan
Ederrak iru alaba.*

72.

*Altzak arrie zabal
Begoñegañean
Asko be zabalago
Baso baltz aldean.*

73.

*Arin arin duela
itzuen soñue
Otsek (sic) apurtuten dau
Zapata sorue.*

74.

*Gorozikeko etxe baten
Zazpi koltxa oge baten
Mutii bi ipiñi douz
Deskantzaten⁽¹⁰⁾ apur baten.*

75.

*Sisilio belensiko
Soso armario
Gantzontzillo borlea
Ankatik darío.*

76.

*Jose Benito Saleue
Algortan esamiñeue
Portugaleteko barran
Brantza estue paseue.*

77.

*Nabarriz Anbotoko
Eulesti mendi
Aretan iruretan
Axe otza sarri. ⁽¹¹⁾*

78.

*Durangon baskaldute
Mañarie (n) gora⁽¹²⁾
Txakur zulon jausi de
Eperdiez gora.*

79.

*Laztanen portalean
Dagoz arbola bi
Bata naranjea ta
Bestea madari.*

80.

*Inkirrinki soñue
Belensin gorako
Zapatai soruek
Egin uderako.*

81.

*Maritxu Petrolina
Ze enbra polite
Buruen pañeloa
Moño ipiñite.*

82.

*Tortolo Makastiko
Nor dozu nobie?
- Erramona Garatzeko
Kolore gorrie.*

83.

*San Adrian San Adrian
Agostuaren erdian
Neu ber'antxe nenguan
Eurie zan arrastian.*

84.

*Goirango kamarara
Bidea labana
Galdarean sartzeko
Mutil barrabana.*

85.

*Ixiliek egon adi
Faltso arlotea
Igatitiek yaukoat nik
Sarna kokotean*

86.

*Astotxo bat baneuko
Buzten zuriegaz
Ermure joateko
Gona gorriegaz.*

87.

*Aldaz bat igarota
Zelai eder baten
Kristo topatu nuben
Mezea emoten.*

88.

*Ababatxoa txingorrigau
Ez egin lorik basoan
Asagariek yan ezagizen⁽¹³⁾.
Bildotsa zaralakoan.*

89.

*Ababatxoa lo ta lo
Zuk orain eta nik gero
Zeuk gura dozun orduren baten
Biok egingo dogu Jo ta Jo.*

90.

*Dingilin dango Marine
Beti onela bagiñe
Beti onela izateko
Burue deukek arine.*

91.

*Aizea fresko dago Arralde gañean
Arkondara bustie
Baleuko soñean.*

92.

*San Antonio San Antonio
Txarrie gexo danean
San Antonio ezta esaten
Urdeie yaten danean.*

93.

*Axeak eta euriek
Atera bear begiek
Beko lupetzan galdu doguz
Lagunik erdiek⁽¹⁴⁾.*

94.

*Auxe da despedidea
Despedide onen tristea
Egin badot berba txarto
Parkeske nago ientea.*

95.

*Neskatilla morenea
Maronezkoa gonea
Abarka trailla baltzakin
Dirudi probintzianea.*

96.

*Orratzaren punteak
Irabazi gitxi
Endemas trabenara
Bidea badaki.*

97.

*Negar da negar dago
Errosa gurea
Katuek yan deutzela
Bai labadurea
Ez egizu Errosa
Ez egin negarrik
Ez zara geldituko
Lebadure barik.*

98.

*Errementari androk
Goizean goizean
Txikerdi aguardiente
Arnasa batean.*

99.

*Ola-gizonak eta
Errementariak
Frakatxu zarrak eta
Begieak gorriak.*

*Irabazten dituez
Pezeta zuriek
Eroaten deutziez
Euren egarriak.*

100.

*Edurra tcillatuan
Sakue lepuan
Ibilli bearako du
Aurtengo neguan.*

101.

*Aranakatan
Akerra dantzan
Astoa biolin jotan
Asagarie sueri puske
Erbie urun eralten.*

102.

*Dingilin dangoloa
I ezaz zoroa
Sardina burua baiño
Oba dok oilloa.*

103.

*Txikitxutarik aitek eta amak
Fraile ninduen nonbradu
Esturioak ikasten bere
Salamankara bialdu.
Andik onantza nentorrela
Bidian neban pentsatu
Estudiante tunante baiño
Oba nebala ezkondu.
Ezkondu nintzan ezkondu
Bai niri ondo damutu
Fraka baltzetan ari zuria
Etxat sekule faltatu.*

104.

*Eurie dakar menditik
Naparroaren ganetik
Amak ogie Labatik
Aitek ardaoa sagitik
Edan mutillok gogotik!*

105.

*Din dan
Nor il da
Peru zapatarie
Zer egin dau? Pekatu
Auzoko txakurre urkatu
Ori baiño egin ezpadau
Bearko yakola parkatu.*

106.

*Arto kamara (n) motxoliñoa
Domingilloa lepoan
Onexek jaiok pasau artean
Ez dot besterik gogoan.*

107.

*Anton errementari
Bentanan lo doa
Urria daroalakoan
Plomoa daroa.*

108.

*Txilin txilin muñe
Biar Santa Muñe
Etzi Domu Santu
Zeiñek zuloan sartu.*

109.

*Ama negarrez
Aita dolorez
Abadea kantetan
Eleizako atetan
Errealen pozez.*

ETXEBARRIA-TAR PELIK BATUAK.

OHARRAK

- (1) «Millerle» euskeraz deitzen deutsie bertako ingurukoek Arabako Villarreal herriari.
- (2) Biltzaileak «oba da conbeni» idazten dauala dirudi 2. lerroan, eta gero azkenengoan dakarren «Buruko sentzuni» horri «-k» gehitu behar litzakiola.
- (3) Oguzten dan modura idazten dau «ba gaitik»; guk argitasunerako idatzi dogu «ba(t)».
- (4) «on» horrek «egon» esan gura dau.
- (5) «Zatan lei alegre danak» idatzi dauala dirudi. Ez ete litzateke ulertu behar «Kanta lei alegre danak»?
- (6) Ez ditugu ipini 22. eta 23. bertsoak, hain zuzen ere «Aitak eta amak Salamankara» hasten diranak, biltzaileak berak tatzatu ditualako. Izan ere 103. zenbakian dakarren kanta berbera dalako. Orriaren barrentxoan, 22-23 zenbakioi dagokien gehigarritzko koplaxo bat idatzi dau biltzaileak:
«Txoritxuak kaiolara
Estudianteak estudiora»
- (7) «Eztaukaz» dakarren arren, «ez daukadaz» ulertu behar da.
- (8) Badirudi agindu zentzuz ulertu behar dala, «yan daigun» edo.
- (9) Biltzaileak «Begie ranpato» dakar.
- (10) Biltzaileak «denkantzaten» ipini dau.
- (11) Ez dakit ondo jasota dagoan. Behintzat beste modu honetara entzuten da la beti:
«Nabarriz Amoroto / Santa Eufemia mendi
Aretan iruretan / axe otza sarri»
- (12) Biltzaileak «Mañarie gora» dakar; «Mañarie gora» entzuten da gehienetan.
- (13) Biltzaileak «ezakisen» idatzi dau, eta «ezagizen» (ez zagizan) behar leuke.
- (14) Kopla honen azken lerroak beharbada hobeto legokez neurri aldetik beste honetara:
«Beko lupetzan galdu
Doguz lagunik erdiek»